

## DIPLOMATUEN AITORPENK (Diplomaturatik gradura)

EHUko Irakasle Eskoletako batean diplomatura bat egina dutenek, gradu bat lortu ahal izateko, **hiru eskolen artean adostutako erabakia** aplikatuko da:

**HH diplomaturatik LH gradura.** Haur Hezkuntzako diplomatura egina izanik, Lehen Hezkuntzako gradua egin nahi dutenek maiorreko<sup>1</sup> honako irakasgai hauek egin beharko dituzte:

- 25866 Naturaren zientziak lehen hezkuntzako ikasgelan II (9 kred.)
- 25867 Gizarte-zientziak eta beren didaktika II (9 kred.)
- 25871 Matematika eta bere didaktika II (9 kred.)

**LH diplomaturatik HH gradura.** Aldiz, Lehen Hezkuntzako diplomatura<sup>2</sup> egina izanik, Haur Hezkuntzako gradua egin nahi dutenek maiorreko<sup>1</sup> honako irakasgai hauek egin beharko dituzte:

- 25914 Haurtzaroaren psikologia (6 kred.)
- 25903 Arte plastikoak eta ikuste-kultura haur-hezkuntzan II (6 kred.)
- 25907 Musika-adierazpenaren garapena II (6 kred.)
- 25909 Garapen psikomotorra II (6 kred.)

Halaber, laugarren maila osoa egin beharko dute, Gradu Amaierako Lana eta Practicum III barne.

Beraz, eskolen artean adostutako gutxieneko kreditu kopurua bete ahal izateko, *Atzerriko Hizkuntza* edo *Hezkuntza Berezia* diplomatura egina duten ikasleek, Haur Hezkuntzako gradua egin ahal izateko, ezingo dituzte minor horiek aukeratu hurrenez hurren.

Nolanahi ere, *Atzerriko Hizkuntza* edo *Hezkuntza Berezia* diplomatura egina izanik, Lehen Hezkuntzako gradua egin nahi duenak, minor horiek ere aukeran izango ditu. Hala, minar horietan sartzea lortuko balu, laugarren mailan Gradu Amaierako Lana eta Practicum III egin beharko lituzke bakarrik.

<sup>1</sup> Maior = lehenengo 3 urteak. Minor (espezializazioa) = 4. urtea

<sup>2</sup> Baita Atzerriko Hizkuntza, Hezkuntza Berezia, Musika edo Gorputz Heziketa diplomaturak ere.

**HH diplomaturatik HH gradura.** Haur Hezkuntzako diplomatura egin izanik, Haur Hezkuntzako gradua egin nahi dutenek honako irakasgai hauek egin beharko dituzte:

- Minorra (Hautazko irakasgaiak hartu beharko ditu. Guztira 30 kreditu)
- Pacticum III (18 kreditu)
- GRALa (12 kreditu)

**LH diplomaturatik LH gradura.** Lehen Hezkuntzako diplomatura egin izanik, Lehen Hezkuntzako gradua egin nahi dutenek honako irakasgai hauek egin beharko dituzte:

- Minorra (Hautazko irakasgaiak hartu beharko ditu. Guztira 30 kreditu)
- Pacticum III (18 kreditu)
- GRALa (12 kreditu)